

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 220/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko martxoaren 11koa, 999/2001 (EE) Erregelamendua, entzefalopatia espongiforme kutsakor jakin batzuk prebenitzeko, kontrolatzeko eta ezabatzeko xedapenak ezartzen dituena, aldatzen duena, Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenen alorrean.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 220/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2009, por el que se establecen disposiciones para la prevención, el control y la erradicación de determinadas encefalopatías espongiformes transmisibles, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 87/155 de 31/3/2009*)

220/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87/155, 2009/3/31koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**220/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2009ko martxoaren 11koa**

**999/2001 (EE) Erregelamendua, entzefalopatia espongiforme kutsakor jakin batzuk prebenitzeko, kontrolatzeko eta ezabatzeko xedapenak ezartzen dituena, aldatzen duena, Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenen alorrean**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia eta, bereziki, haren 152. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatia aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Aldez aurretik Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin zaio,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz [2],

Honako hauek kontuan hartu dira:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 999/2001 (EE) Erregelamendua [3] xedatzen du zenbait neurri hartu behar direla, Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak agindutakoari jarraituz (1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituena) [4].

(2) 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen Kontseiluaren 2006/512/EE Erabakiak [5]; hain zuzen ere, azken erabaki horren bitartez sartu zen kontrolpeko arautze-prozedura, Trataturiko 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarriko egintzetan funtsezko ez diren elementuak aldatzeko irismen orokorreko neurriak hartzeko, zenbaitetan elementu horietako batzuk ezabatuz edo oinarriko egintza osatzeko funtsezkoak ez diren beste elementu batzuk gehituz.

(3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak [6] 2006/512/EE Erabakiari buruz egindako Deklarazioak adierazitakoari jarraituz, kontrolpeko arautze-prozedura indarrean dauden egintzei aplikagarri izan dakien (Trataturiko 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera onartuak), egokitu egin behar dira egintza horiek, aplikagarri diren prozeduren arabera.

(4) 999/2001/EE Erregelamenduari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1923/2006/EE Erregelamendua [7] aldaketek eragindako aplikazio-neurri jakin batzuetarako baino ez zuen ezarri kontrolpeko arautze-prozedura. Beraz, 999/2001/EE Erregelamendua egokitu behar da, gainerako egikaritze-eskumenei lotuta.

(5) Bereziki, komeni da eskumenak ematea Batzordeari, honako hauek egin ditzan: diagnostiko azkarreko probak erabaki, xedapen jakin batzuk animalia-jatorriko beste produktu batzuei ere aplikagarri egin, ardiek eta ahuntzek behien entzefalopatia espongiformea (BSE) dutela baieztatzeko metodoa onartu, eranskinak aldatu eta behin-behineko neurriak hartu. Neurri horiek irismen orokorrekoak direnez, eta 999/2001/EE Erregelamenduko funtsezko ez diren elementuak aldatzekoak direnez (batzuetan, funtsezkoak ez diren beste elementu batzuk sartuz osatzen dute Erregelamendua), 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluan xedatutako kontrol bidezko arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(6) Gainera, baieztatzen denean animalien batek entzefalopatia espongiforme kutsakorra (EET) duela, komeni da mugatzea estatu kideek kasu jakin batzuetan beste neurri batzuk ezartzeko aukera; zehazki, kasu hauetan: Batzordeak, neurri horiek onartzeko, oinarri hartzen duenean estatu kide horretan kontrola egiteko neurriak bereziki aintzat hartuko dituen arriskuaren ebaluazio aldekoa, eta neurri horiek babes-maila baliokidea eskaintzen dutenean.

(7) Ondorioz, 999/2001 (EE) Erregelamendua aldatu behar da.

220/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 87/155, 2009/3/31koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

### *1. artikulua*

Aldaketa hauek egin zaizkio 999/2001 (EE) Erregelamenduari:

1) 5. artikuluko 3. paragrafoan, hau jarri da 3. lerrokadaren ordez:

«Horretarako, diagnostiko azkarraren probak baimenduko dira 24. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako kontrol bidezko arautze-prozeduraren arabera, eta X. eranskineko C kapituluko 4. puntuko zerrendan jasoko dira.»

2) 9. artikuluko 3. paragrafoaren ordez hau jarri da:

«3. V. eranskineko 5. puntuan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, 1. eta 2. paragrafoak ez zaizkie aplikatuko 24. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako kontrol bidezko arautze-prozeduraren arabera onartuta dagoen bestelako proba bat lehenago egin zaien hausnarkariei, betiere proba hori X. eranskinean jasota badago eta probaren emaitzak negatiboak badira.»

3) 13. artikuluko 1. paragrafoan, 3. lerrokadaren ordez hau jarri da:

«Paragrafo honetan xedatutakoa betetzeko izango bada ere, estatu kideek bestelako neurriak ezar ditzakete, baina neurri horiek babes-maila antzekoa eskaini behar dute. Bestelako neurriak ezartzeko, arriskuaren ebaluazio aldekoa hartu beharko dute oinarri, 24. bis eta 25. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Eta, bereziki aintzat hartu behar dituzte estatu kide horretan lehendik dauden kontrol-neurriak, baldin estatu kide horrek neurri horiek onartu baditu 24. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako arautze-prozeduraren arabera.»

4) 16. artikuluko 7. paragrafoaren ordez hau jarri da:

«7. 24. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera, 1. paragrafotik 6. paragrafora arteko xedapenak animalia-jatorriko bestelako produktuetan ere ezar daitezke. Artikulu hau garatzen duten arauak onartuko dira 24. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako arautze-prozeduraren arabera.»

5) 20. artikuluko 2. paragrafoaren ordez hau jarri da:

«2. Artikulu honetan xedatutakoa era bateratuan aplikatuko dela bermatzeko beharrezko denean, garapen-arauak hartuko dira, 24. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako arautze-prozeduraren arabera. Ardiek eta ahuntzek EEB dutela baieztatzeko metodoa sortuko da 24. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera.»

6) 23. artikuluko lehen lerrokadaren ordez hau jarri da:

«Osasun publikoan eragina izan lezakeen edozein gairen gaineko kontsulta batzorde zientifiko egokiari egin eta gero, eranskinak aldatu edo osatuko dira, eta edozein behin-behineko neurri egoki hartuko da, 24. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako kontrol bidezko arautze-prozeduraren arabera.»

7) 23.bis artikuluari aldaketa hauek egin zaizkio:

Lehenik, a) idatz-zatiaren ordez honako hau jarri da:

«a) honako paragrafo hauetan aipatutako diagnostiko azkarreko probak onartzea: 5. artikuluko 3. paragrafoko 3. lerrokan, 6. artikuluko 1. paragrafoan, 8. artikuluko 2. paragrafoan eta 9. artikuluko 3. paragrafoan»;

Bigarrenik, honako idatz-zati hauek gehitu dira:

«k) 16. artikuluko 1. paragrafotik 6. paragrafora arteko xedapenak aplikatzea animalia-jatorriko beste produktu batzuetan ere;

l) ardiek eta ahuntzek EEB dutela baieztatzeko metodoa onartzea, 20. artikuluko 2. paragrafoan aipatua;

m) eranskinetan aldaketak egitea edo eranskinak osatzea, eta 23. artikuluan aipatutako behin-behineko edozein neurri egoki hartzea».

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*2. artikulua*

Erregelamendu hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako atal guztiak derrigorrez bete beharrekoak eta estatu kide guztietan zuzenean ezartzeak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko martxoaren 11n.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
A. VONDRA

[1] C 211 EO, 2008/08/19koa, 47. or.

[2] Europako Parlamentuaren Txostena, 2008ko irailaren 23koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko otsailaren 16koa.

[3] L 147 EO, 2001/05/31koa, 1. or.

[4] L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or.

[5] L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.

[6] C 255 EO, 2006/10/21ekoa, 1. or.

[7] L 404 EO, 2006/12/30ekoa, 1. or.